

Aurrera Begira

2024

Gazteen
aurreikuspenei
buruzko adierazleak



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ONGIZATE, GAZTERIA ETA
ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN SAILA

DEPARTAMENTO DE BIENESTAR,
JUVENTUD Y RETO DEMOGRÁFICO



GAZTEEN EUSKAL
BEHATOKIA **OBSERVATORIO VASCO**
DE LA JUVENTUD

Aurrera Begira 2024

Gazteen aurreikuspenei buruzko adierazleak



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ONGIZATE, GAZTERIA ETA
ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN SAILA

DEPARTAMENTO DE BIENESTAR,
JUVENTUD Y RETO DEMOGRÁFICO



GAZTEEN EUSKAL
BEHATOKIA OBSERVATORIO VASCO
DE LA JUVENTUD

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2025

Lan honen bibliografía-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoa aurki daiteke: <https://www.katalogoak.euskadi.eus/katalogobateratua>

Argitaraldia: 1.a, 2025eko maiatza

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Ongizatea, Gazteria eta Erronka Demografikoaren saila
Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco
Departamento de Bienestar, Juventud y Reto demográfico

Internet: www.euskadi.eus

Argitaratzailea:

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Egileak:

Oskar Longo Imatz, Miren Bilbao Gaztañaga, Nieves Corcuera Bilbao

Itzulpena:

Gazteen Euskal Behatokia

Diseinua eta maketazioa:

Gazteen Euskal Behatokia

ISSN: 2792-7067



Dokumentu honen edukiak, oraingo edizioan, litzentzia honetan argitaratu dira:
Aitortu – Ez merkataritzarako – Lan eratorririk gabe 4.0 Unported
(<https://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/deed.eu>)

AURKIBIDEA

SARRERA.....	6
METODOLOGIA.....	7
1. EGOERAREN BALORAZIO INDIZEA	8
2. NORBERAREN ONGIZATE INDIZEA	9
3. BIZITZAREN ALDERDIEN BALANTZEA	10
4. LANA GALTZEKO EDO BALDINTZAK OKERTZEKO ARRISKUA	11
5. LANA AURKITZEA AURREIKUSTEA.....	12
6. PRESTAKUNTZARI LOTUTAKO LANA IZATEA AURREIKUSTEA.....	13
7. DERRIGORREZ EMIGRATU BEHARRA AURREIKUSTEA	14
8. EMANTZIPAZIOA ZAPUZTUKO DELA AURREIKUSTEA	15
9. AMATASUN ETA AITATASUN ATZERATUAREN INDIZEA.....	16
10. ETORKIZUNAREKIKO KONFIANTZA INDIZEA.....	17
EMAITZEN IRAKURKETA.....	18
ONDORIOAK	22
I. ERANSKINA: NOLA KALKULATZEN DIREN ADIERAZLEAK	23
II. ERANSKINA: ADIERAZLEEN BILAKAERA 2013-2022	27
III. ERANSKINA: ADIERAZLEAK KALKULATZEKO ERABILITAKO OINARRIZKO DATUAK	28
IV. ANEXO: ADIERAZLEAK EGITEKO OINARRIZKO DATUEN BILAKAERA	34

SARRERA

Aurrera Begira Gazteen Euskal Behatokiak urtero egiten duen ikerketa da, euskal gazteek gaur egun duten pertzepzioa eta epe laburrean izango dituzten etorkizunerako itxaropenak ezagutzeko.

Hamabigarren edizio honetan, gazteen egoeraren bilakaera, orainaren balorazioa eta etorkizunerako aurreikuspenak erakusten dituzten hamar adierazleetan lortutako emaitzak aurkezten dira.


Aurrera Begira-k, hamabi urtez etenik gabe argitaratu ondoren, euskal gazteen egoera ebaluatzeko eta jarraitzeko tresna erraz eta sintetiko bat eskaintzen jarraitzen du, 10 adierazleren bidez. Adierazle horiek beren egoera nola balioesten duten aztertzen dute, eta arreta berezia jartzen dute enpleguan eta emantzipazioan, bai eta etorkizunari begira dituzten itxaropenetan ere. Gazteen lehentasunen eta bizi-proiektuak garatzeko dituzten zailtasunen bilakaera ezagutzeak aukera ematen die gazteen arloan erantzukizun politiko eta teknikoak dituztenei erabaki informatuak hartzeko.

METODOLOGIA

IKERKETA TEKNIKA	Inkesta mistoa, telefono bidezkoa eta online bidezkoa, galdera gehienetan galdera-sorta egituratua eta itxia duena
UNIBERTSOA	Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazteak
INKESTA KOPURUA	2.663 (519 Araban bizi dira, 1.127 Bizkaian, 830 Gipuzkoan eta 187 Euskaditik kanpo)
LAGIN AKATSA	$\pm$ % 2,1 (% 95,5eko konfiantza-maila eta $p=q=0,5$)
LANDA LANAREN EPEAK	2024ko abenduaren 9tik 2025eko urtarrilaren 8ra
IKERKETAREN DISEINUA, EMAITZEN ANALISIA ETA TXOSTENA BURUTZEA	Gazteen Euskal Behatokia
LANDA LANAREN ENPRESA ARDURADUNA	INGARTEK Consulting S.L.

1. EGOERAREN BALORAZIO INDIZEA


Norberaren egoera pertsonalari, gazteen egoera orokorrari eta Euskadiren egoerari emandako balorazioen batez besteko puntuazioa, 0tik 100era doan eskalan.



EGOERAREN BALORAZIO INDIZEA								
Guztira	Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
67	67	68	71	66	66	66	68	67

2. NORBERAREN ONGIZATE INDIZEA

Norberaren egoerari buruzko hainbat arlo aintzat hartuta (lan egoera edo lanarekiko aurreikuspenak, ikasketak edo prestakuntza maila, familia, astialdia edo denbora libre, lagunak, harreman sentimentalak edota sexualak, osasun fisiko eta mentala, itxura fisikoa, hilean duten dirua eta familiarekin edo beren kontura bizitzea, norberaren kasua kontuan izanda), bakoitzarekiko poztasunari emandako balorazioen batez besteko puntuazioa, 0tik 100era doan eskalan).



NORBERAREN ONGIZATE INDIZEA								
Guztira	Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
72	71	74	74	72	72	73	72	73

3. BIZITZAREN ALDERDIEN BALANTZEA


Bizi-alderdien balantzeak erlazioan jartzen ditu, alde batetik, gazteek beren bizitzako hamar alderdiri ematen dieten garrantzia eta, bestetik, haiekin lortzen duten gogobetetasuna, eta bi kasuetan 0-100 eskala erabiltzen da. Kontuan hartutako hamar alderdiak hauek dira: lan egoera edo lanarekiko aurreikuspenak, ikasketak edo prestakuntza maila, familia, astialdia edo denbora libre, lagunak, harreman sentimentalak edota sexualak, osasun fisikoa, osasun mentala, itxura fisikoa, hilean duten dirua eta familiarekin edo beren kontura bizitzea, norberaren kasua kontuan izanda. Gogobetetzearen kenketak ken alderdi bakoitzari emandako garrantziak zehazten du dagoen arraila, eta balantzea positiboa edo negatiboa den.

	GOGOBEKETASUNA	GARRANTZIA	BALANTZEA
Dirua	63	81	-18
Osasun mentala	72	89	-17
Astialdia	69	82	-13
Osasun fisikoa	74	86	-12
Lana	66	78	-12
Lagunak	77	84	-7
Harreman sentimentalak edota sexualak	67	74	-7
Ikasketak	78	83	-5
Familia	84	88	-4
Itxura fisikoa	71	71	0
Norberaren kontura edo familiarekin bizi izatea	74	74	0

BIZITZAREN ALDERDIEN BALANTZEA									
GOGOBEKETASUNA - GARRANTZIA)	GUZTIRA	SEXUA		ADIN TALDEAK			LURRALDE HISTORIKOA		
		Emakumea	Gizona	15-19	20-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Dirua	-18	-22	-15	-10	-23	-21	-17	-20	-16
Osasun mentala	-17	-19	-13	-12	-17	-20	-17	-17	-15
Astialdia	-13	-15	-11	-10	-13	-15	-14	-14	-11
Osasun fisikoa	-12	-13	-10	-7	-14	-14	-12	-12	-10
Lana	-12	-13	-8	1	-17	-17	-12	-11	-10
Lagunak	-7	-8	-5	-6	-7	-8	-7	-6	-6
Harreman sentimentalak edota sexualak	-7	-6	-8	-6	-7	-7	-6	-6	-7
Ikasketak	-5	-6	-4	-9	-4	-3	-6	-6	-4
Familia	-4	-6	-4	-4	-4	-6	-5	-5	-4
Itxura fisikoa	0	-4	4	-2	0	2	-1	-1	2
Norberaren kontura edo familiarekin bizi izatea	0	0	2	20	-8	-10	1	1	3

4. LANA GALTZEKO EDO BALDINTZAK OKERTZEKO ARRISKUA

Urtebeteen enplegua galtzea edo beren lan-egoera okertzea oso edo aski litekeena delako ustea duten langile gazteen ehunekoa.




LANA GALTZEKO EDO BALDINTZAK OKERTZEKO ARRISKUA									
	Guztira	Emakum.	Gizona	15-19	20-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Lana galtzeko arriskua	27	30	24	*	25	29	33	27	27
Baldintzak okertzeko arriskua	14	16	13	*	14	15	17	14	16
ARRISKUA GUZTIRA (galtzea+okertzea)	41	46	37	*	39	44	50	41	43

*15-19 urteko adin-taldean ez dago estatistikoki esanguratsuak diren datuak emateko adina gazte lanean.

5. LANA AURKITZEA AURREIKUSTEA

Urtebeteko epean enplegua aurkitzea espero duten langabe gazteen ehunekoa.




LANA AURKITZEA AURREIKUSTEA					
Guztira	Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
70	65	73	*	68	74

* 15-19 urteko adin-taldean ez dago estatistikoki esanguratsuak diren datuak emateko adina gazte langabezian.

6. PRESTAKUNTZARI LOTUTAKO LANA IZATEA AURREIKUSTEA


Ikasketak bukatutakoan, prestakuntzari lotutako enplegua aurkitzea espero duten ikasleen ehunekoa.



PRESTAKUNTZARI LOTUTAKO LANA IZATEA AURREIKUSTEA								
Guztira	Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
82	79	86	84	79	82	77	84	83

7. DERRIGORREZ EMIGRATU BEHARRA AURREIKUSTEA


Etorkizunean, joan nahi ez badute ere, atzerrira lan egitera emigratu beharko dutela uste duten gazteen ehunekoa.



DERRIGORREZ EMIGRATU BEHARRA AURREIKUSTEA								
Guztira	Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
10	9	11	8	10	12	9	11	8

8. EMANTZIPAZIOA ZAPUZTUKO DELA AURREIKUSTEA


Emantzipazio-proiektuak urtebeteko epean gauzatzerik izango ez dutela uste duten gazteen ehunekoa, gurasoen etxetik atera nahi izan arren horretarako aukerarik ikusten ez dutelako, edo, bestela, emantzipatuta egon arren gogoz kontra gurasoen etxera itzuli beharko dutela uste dutelako.



EMANTZIPAZIOA ZAPUZTUKO DELA AURREIKUSTEA								
Guztira	Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
44	43	45	43	50	40	45	48	44

9. AMATASUN ETA AITATASUN ATZERATUAREN INDIZEA


Seme-alabarik ez duten pertsonen artean, seme-alabak izatea gustatuko litzaiekeela, baina nahi duten adinean ez dituztela izango uste duten gazteen ehunekoa.



AMATASUN ETA AITATASUN ATZERATUAREN INDIZEA								
Guztira	Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
32	36	29	25	35	37	30	33	31

10. ETORKIZUNAREKIKO KONFIANTZA INDIZEA

Batez besteko puntuazioa, 0tik 100era bitarteko eskalan, bost urteko epean norberaren, gazteen eta Euskadiren egoerak izango duen bilakaerari dagokionez.



ETORKIZUNAREKIKO KONFIANTZA INDIZEA								
Guztira	Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
56	56	57	60	55	54	59	56	55

EMAITZEN IRAKURKETA

Gazteen aurreikuspenei buruzko Aurrera Begira inkestak 2013tik urtero jasotzen du Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko pertsonen bizi duten momentuari eta etorkizuneko itxaropenei buruz egiten duten balorazioa.

2.663 gaztek erantzun diote Gazteen Euskal Behatokiaren inkestari 2024ko abenduan. Erantzunetatik abiatuta, 10 adierazle egiten dira, honako hauek neurtzen dituztenak: norberaren ongizate-maila, lan-itxaropenak eta emantzipazioari buruzkoak, etorkizuneko amatasunaren eta aitatasunaren aurreko ikuspegia, eta, azkenik, etorkizunarekiko konfiantza.

1. EGOERAREN BALORAZIO INDIZEA

2024an, EAEko gazteek 100 puntutik 67 eman dizkiote egungo egoerari, 2023an baino bi puntu gehiago eta 2022an baino bost gehiago. Adin-talderik gazteena, 15 eta 19 urte bitartekoen taldea, batez bestekoa baino puntuazio positiboagoa izateagatik nabarmentzen da (71 puntu).

Adierazle honek inkestatutako pertsonen beren egoera pertsonalari, gazteriaren egoerari eta Euskadiren egoerari buruz egiten dituzten balorazioak batzen ditu, eta hiru errealitate horiei emandako puntuazioen batez besteko gisa kalkulatzeko da.

Hiruretatik, egoera pertsonala da positiboena (73 puntu 100etik). Adierazleak beherantz egin du. Euskadiko egoeraren balorazioagatik (100etik 65), eta, batez ere, gazteek kolektibo gisa duten egoeraren balorazioagatik (100etik 58 puntu), egoera pertsonalaren eta Euskadiko egoeraren balorazioen oso azpitik baitago. Errealitate batzuen eta besteen balorazioen arteko alde hori egonkor mantentzen da datu-serie osoan zehar, eta gazteen artean premia eta arazo espezifikoak dituen gizarte-talde bateko kide izatearen kontzientzia dagoela adierazten du.

2. NORBERAREN ONGIZATE INDIZEA

Norberaren Ongizate Indizeak hobera egin du berriro hirugarren urtez jarraian, eta 100etik 72 puntura iritsi da. Gizon gazteek (74 puntu) eta 15 eta 19 urte bitartekoek (74 puntu) gogobetetze-maila handiagoa dute.

Indize honek sakonago aztertzen du gazteek sentitzen duten ongizate-maila; izan ere, gazteek beren bizitzako hamaika alderdiri buruz duten gogobetetzearen batez bestekoa erakusten du. Hauek dira 11 alderdi horiek: lan-egoera edo lan-itxaropenak, ikasketak edo lortutako prestakuntza-maila, familia, aisialdia, lagunak, harreman sentimentalak eta/edo sexualak, osasun fisikoa, osasun mentala, irudi fisikoa, diru-eskuragarritasuna eta emantzipazioari lotutako egoera, beren kontura edo gurasoekin bizitzeagatik.

Alderdi azpimarragarri gisa, 2024an bi puntu hobetu da osasun mentalarekiko gogobetetasuna, aurreko urtearekin alderatuta, arlo hori sartu zen lehenengoa. Euskadiko gazteek balorazio ona ematen diote bere osasun mentalari, 100etik 72 puntu. Gogobetetzetik handiena familiak du (84 puntu); ondoren, lortutako ikasketak edo prestakuntza-mailak (78), lagunek (77), osasun fisikoak eta emantzipazioari lotutako egoerak (74), osasun mentalak (72), irudi fisikoak (71), astialdiak (69), harreman sentimentalak eta/edo sexuak (67), lanak (66) eta, azkenik, eskura duten diruak (63)

3. BIZITZAREN ALDERDIEN BALANTZEA

Azterlan honetako hirugarren adierazlea kalkulatzeko, gazteei ongizate pertsonala kalkulatzeko erabilitako hamaika arloetako bakoitzak duen garrantziaz galdetu zaie. Horrela, gogobetetzea garrantziarekin erlazionatuz, Bizitzaren Alderdien Balantzea lortzen dugu, arlo defizitarioenak agerian uzten dituen.

Balantzean hala sartu aurretik, 2024an gazteek garrantzi handiena ematen dieten bizi-arloak nabarmenduko ditugu. Gazteen bizitzako arlo garrantzitsuenak osasun mentala eta familia dira: 89 puntu eta 88 puntu 100 puntutik, hurrenez hurren. Osasun fisikoa, lagunak, ikasketak, astialdia eta dirua osasun mentalaren eta familiaren atzetik doaz garrantzian, 100etik 86 eta 81 puntu bitarteko puntuazioekin. Gainerako alderdiek 80tik beherako puntuazioak lortu dituzte.

Dirua, garrantziaren eta gogobetetasunaren arteko 18 puntuko distantziarekin, 2024ko balantzerik negatiboena duen alderdia da, aurreko urtearekin alderatuta hobera egin duen arren.

Bigarren eremu defizitarioena osasun mentala da. Gogobetetzea handia bada ere, gazteek garrantzi handiena ematen diote gai horri 2024an (72 puntu); beraz, garrantziaren (89) eta gogobetetzearen (72) arteko aldea 17 puntutan mantentzen da, 2023an ere zituenak.

Astialdia da balantze negatiboena izan duen hirugarren arloa, garrantziaren eta gogobetetzearen arteko 13 puntuko aldearekin 2024an.

Osasun fisikoak eta lanak 12 puntuko tarte dute garrantziaren eta gogobetetzearen artean.

Emakumeek eta 25 eta 29 urte bitartekoek balantze negatiboagoak dituzte aipatutako alderdietan.

Gainerako arloek askoz alde txikiagoak dituzte, 10 puntutik beherakoak, garrantziaren eta gogobetetzearen artean.

4. LANA GALTZEKO EDO BALDINTZAK OKERTZEKO ARRISKUA

Adierazle horrek erakusten du lanean ari diren gazteen artean zer ehunekok uste duen urtebeteko epean litekeena dela haien lan-baldintzek okerrera egitea edo enplegua galtzea. 2024an % 41 da, aurreko urtean baino 2 puntu gehiago, baina 2020ko emaitzetatik

urrun (% 48). Gazte okupatuak % 27k uste du urtebeteko epean lana gal dezakeela, 2023ko ehuneko bera, eta % 14k, lana galtzeko beldurrik ez badu ere, uste du lan-baldintzak okertu daitezkeela, iaz baino bi puntu gehiago. Emakumeen artean, enplegua galtzeko edo prekarizatzeko arriskua handiagoa da (% 46).

5. LANA AURKITZEA AURREIKUSTEA

Enpleguari buruzko adierazle honek jasotzen du urtebeteko epean lana aurkitzea aurreikusten duten gazte langabeen ehunekoa. Langabezian dauden gazteen % 70ek epe laburrean lana aurkitzea espero dute, 2023an baino zertxobait gutxiagok (% 72), baina pandemiaren ondorioz ezkor zeuden 2020ko (% 64) eta 2021eko (% 62) datuen oso gainera.

6. PRESTAKUNTZARI LOTUTAKO LANA IZATEA AURREIKUSTEA

Okupazio nagusi gisa ikasten duten gazteen artean, Prestakuntzari Lotutako Lana Izatea Aurreikuste adierazlea kalkulatu da. Adierazle horrek erakusten du ikasketak amaitzean beren prestakuntzarekin bat datorren enplegu bat aurkitzea espero duten gazteen ehunekoa. 2024an, ehuneko hori % 82koa da, handiena 2013tik, ikerketa hau hasi zenetik

Gizon gazteen artean, prestakuntzari lotutako lana izatea aurreikustea % 86ra iristen da, emakumeen ehuneko (% 79) baino askoz ere handiagoa.

7. DERRIGORREZ EMIGRATU BEHARRA AURREIKUSTEA

Enpleguaren eremua Derrigorrez Emigratu Beharra Aurreikustearen adierazlearekin amaitzen da, etorkizunean nahi gabe atzerrira lan egitera emigratu beharko dutela uste duten gazteen ehuneko islatzen duena.

2018tik gertatzen ari den bezala, adierazlea oso zifra baxuetan mantentzen da, 2024an % 10 izanik. Izan ere, atzerrira lan egitera joateko aukera dutela uste duten pertsona gehienek benetan nahi dute joan.

8. EMANTZIPAZIOA ZAPUZTUKO DELA AURREIKUSTEA

Zortzigarren adierazleak emantzipazioarekin du zerikusia, eta gaur egun familiaren etxean bizi diren, eta emantzipatu nahi duten arren, urtebeteko epean emantzipatu ezin izango direla uste duten gazteen ehuneko adierazten du, bai eta jada modu independentean bizi diren baina nahi gabe familiaren etxera itzuli beharko dutela uste dutenen ehuneko ere.

Adierazlea egonkor mantendu da azken urteetan. 2024an, gazteen % 44 dago egoera horretan, 2023an baino puntu bat gehiago eta 2022an baino puntu bat gutxiago. Nolanahi ere, 2018ko datutik bost puntura dago. 2018ko datua, 2015ekoarekin batera, 2013an hasitako serieko altuenak eta negatiboak izan dira.

Gehienak, % 42, lehenengo egoeran daude, hau da, gurasoekin bizi dira eta emantzipatu nahiko lukete, baina ez dute uste urtebeteko epean lortuko dutenik. Soilik % 2 dira familia-

etxetik kanpo bizi diren eta nahi gabe familia-etxera itzuli beharko dutela uste duten gazteak.

9. AMATASUN ETA AITATASUN ATZERATUAREN INDIZEA

Amatasun eta aitatasun atzeratuaren indizeak adierazten du zenbat gazte dauden egoera honetan: orain ez dute seme-alabarik, baina etorkizunean ama edo aita izatea asko edo nahiko gustatuko litzaieke eta ez dute uste egokitzen jotzen duten adinean izango direnik.

2024an, seme-alabarik ez duten baina etorkizunean izatea asko edo nahiko gustatuko litzaiekeen gazteen % 32 egoera horretan dago. Aurreko bi urteekin alderatuta, ehuneko sei puntu igo da portzentajea. Emakumeen artean ehunekoa handiagoa da (% 36) gizonen artean baino (% 29), eta adinean aurrera egin ahala ere gora egiten du, % 37ra iristen baita 25-29 urtekoen artean..

Gaur egun seme-alabarik ez duten gazteen % 72,6k adierazi du etorkizunean seme-alabak izatea gustatuko litzaiokeela, hau da, 2018tik lortutako ehuneko handiena. Bestalde, lehen seme-alaba izateko adinik egokiena 30,2 urte dira hori nahi dutenen artean. Adin ideal hori egonkor mantentzen da datu sorta hori 2015ean hasi zenetik.

10. ETORKIZUNAREKIKO KONFIANTZA INDIZEA

Azkenik, Etorkizunarekiko Konfiantza Indizea hiru puntu jaitsi da 2024an, eta 56 puntuko emaitza eman du 0-100 arteko eskalan. Indize horretan, lehenengo indizean erabiltzen ziren hiru alderdiak hartzen dira kontuan: egoera pertsonala, Euskadikoa eta gazteriarena, baina kasu honetan hurrengo 5 urteetarako aurreikusitako bilakaera hartzen da kontuan.

Adierazle honetan neurtzen diren hiru errealitateetatik, gazteen errealitateak, talde gisa, eta Euskadikoak dira, berriz ere, 5 urteko epean gauzak hobetuko diren konfiantza murrizten dutenak. Gehienek uste dute beren egoera pertsonala hobera joango dela (% 68,5), baina % 27,7k soilik uste du Euskadiren egoera hobetuko dela, eta % 19,9k soilik uste du hobetu egingo dela gazteen egoera kolektibo gisa.

ONDORIOAK

Euskadiko gazteek orainari buruz egiten duten balorazioa hobera doa. Adierazle honetan baloratzen diren hiru eremuetatik (egoera pertsonala, Euskadiren egoera eta gazteen egoera, oro har), lehena da baloraziorik onena jasotzen duena, eta gazteriak kolektibo gisa duen egoerak jasotzen du puntuaziorik baxuena. Egoera pertsonalaren eta, oro har, gazteriaren balorazioaren artean dagoen hamabost puntuko aldeak agerian uzten du gazteak pozik daudela beren bizitzarekin, baina beren burua premia eta gabezia espezifikoak dituen gizarte-talde bateko kide bezala.

Osasun mentala da, familiarekin batera, gazteen bizitzako alderdirik garrantzitsuena. Osasun mentalarekiko gogobetetasuna handia da, eta hobetu egiten da alde aurreko neurketarekiko, baina alde handia dago EAEko gazteek ematen dioten garrantziarekiko. Eskura duten diruaren ondoren, osasun mentala da garrantziaren eta gogobetetzearen arteko balantze negatiboena duen alderdia.

Enpleguari lotutako adierazleek hobera egin dute pandemiarekin alderatuta, batez ere ikasketak amaitzean formazio lotutako enplegua aurkitu dutela uste duten ikasle gazteen ehunekoak; izan ere, 2013. urtean seriea hasi zenetik daturik onena lortu du 2024an. Bestalde, lanean ari direnen enplegua galtzeko edo prekarizatzeko arriskua eta, langabeen artean, urtebeteko epean lana aurkitzeko itxaropena ez dira hobetu 2023tik, baina gainditu egiten dituzte 2020 eta 2022 artean izandako emaitza txarrak. Nahitaezko emigrazioa aurreikusteak oso portzentaje baxuetan jarraitzen du.

Beren kontura bizi nahi, baina urtebeteko epean hori egiteko aukerarik ez dutenen ehunekoa azken urteetako parametroetan eta ikerketa honen bizitzako hamabi urteetan jasotako zifren batez bestekoan mantentzen da. Adierazle horrek Euskadiko 15-29 urteko gazte gehienek emantzipatzeko duten nahia islatzen du, eta, oro har, nahi hori ezin dela gauzatu lan-munduan sartu arte.

EAEko gazteen ia herenak uste du amatasuna eta aitatasuna 30 urtetik gora atzeratu beharko duela, adin hori baita guraso izateko egokiena.

Nahiz eta hiru gaztetik bik uste duten beren egoera pertsonalak hobera egingo duela bost urteko epean, Euskadiko egoeraren bilakaerari buruzko ezkortasunak eta, eta, batez ere, gazteriaren egoerari lotutakoak, etorkizunarekiko konfiantza-indizeak behera eramaten dituzte. Azken urteotan mundu osoan zabaldu den ziurgabetasun-giroak oztopatzen du ongizate personal handia duten gazteen etorkizunaren gaineko konfiantza.

I. ERANSKINA: NOLA KALKULATZEN DIREN ADIERAZLEAK

1. Egoeraren Balorazio Indizea (EBI)

Adierazlea hiru galderatan oinarritzen da. Norberaren egoera pertsonalari (A), Euskadiko gazteen egungo egoerari (B) eta Euskadiren egungo egoerari (C) 0tik 10era bitarteko puntuazioa ematea eskatu zaie inkestatuei.

Adierazlea kalkulatzeko, alderdi bakoitzari emandako puntuazioen batez besteko aritmetikoa egin da, eta emaitza 10ez biderkatu da, 0tik 100era doan eskalara egokitzeko.

$$EBI = [(A+B+C) / 3] \times 10$$

2. Norberaren Ongizate Indizea (NOI)

Adierazlea galdera bakarrean oinarritzen da. Galdera horretan euren bizitzaren hamar alderdietan duten poztasun-mailari 0tik 10era bitarteko puntuazioa ematea eskatu zaie inkestatuei. Hauexek dira hamar alderdi horiek: beren lan-egoera edo lan-aurreikuspenak (A), beren ikasketak edo prestakuntza maila (B), beren familiarekin edo beren kontura bizitzea, norberaren kasuaren arabera (C), beren familia (D), beren astialdia edo denbora libre (E), beren lagunak (F), beren harreman sentimental edota sexualak (G), beren osasun fisikoa (H), beren osasun mentala (I), hilean duten dirua (J) eta beren itxura fisikoa (K).

Adierazlea kalkulatzeko, alderdi bakoitzari emandako puntuazioen batez besteko aritmetikoa egin da, eta emaitza 10ez biderkatu da, 0tik 100era doan eskalara egokitzeko.

$$NOI = [(A+B+C+D+E+F+G+H+I+J+K) / 11] \times 10$$

3. Bizitzaren Alderdien Balantzea (BAB)

Balantzea bi galdera oinarri hartuta egiten da. Lehenengo galderan inkestatutako pertsonari eskatzen zaie adierazteko 0 eta 10 arteko eskala batean zenbat punturekin neurtzen duten beren bizitzako zenbait alderdiri emandako garrantzia (lanari, ikasketa edo formazioari, familiari, osasunari, itxura fisikoari, harreman sentimental edota sexualei, astialdiari, lagunei, diruari eta ematzipatzeari, hau da, beren kontura bizitzeari). Bigarren galderan eskatzen zaie adierazteko alderdi horiekiko (beren lan-egoera edo lanarekiko aurreikuspenak, beren ikasketak edo formazio maila, beren familia, beren osasun fisikoa, osasun mentala, beren itxura fisikoa, beren harreman sentimental edota sexualak, beren astialdia, beren lagunak, hilean duten dirua eta beren familiarekin edo beren kontura bizitzea, norberaren kasuaren arabera) duten gogobetetasun pertsonala edo poztasun maila, 0-10 eskala berean neurtuta.

Ondoren balio guztiak 10ez biderkatzen dira, 0-100 eskalara egokitzeko, eta, ondoren, asebetetzearen kenketa egiten da, alderdi bakoitzari emandako garrantzia kenduta, dagoen arrakala eta balantzea positiboa edo negatiboa den zehazteko..

4. Lana Galtzeko edo Baldintzak Okertzeko Arriskua (LGBOA)

Gazte landunei egindako bi galderatan oinarrituta eratzen da adierazlea. Lehenengoan (A), inkestatutako pertsonei eskatzen zaie adierazteko zer neurritan uste duten litekeena dela urtebeteko epean daukaten enplegua galtzea. Bigarrenean (B), daukaten enplegua ez dutela galduko uste dutenei galdetzen zaie adierazteko zer neurritan uste duten litekeena dela urtebeteko epean beren lan-baldintzak okertzea.

Adierazlea kalkulatzeko, batera kontuan hartzen dira, alde batetik, gazte landunen ehuneko zenbatek uste duten litekeena dela beren enplegua galtzea urtebeteko epean eta, bestetik, lana galtzeko arriskurik aurreikusten ez duten arren, zenbatek uste duten litekeena dela daukaten lan egoera okertzea.

LGOA = (A= Segur aski bai + Agian bai) + [(A= Ez duzu uste + Seguruenik ez) & (B= Segur aski bai + Agian bai)]

5. Lana Aurkitzea Aurreikustea (LAA)

Adierazlea galdera batean oinarritzen da (A), eta bertan langabeei ondokoa eskatu zaie: adieraz dezatela zein neurritan uste duten probablea dela (seguru aski bai, agian bai, ez duzu uste, seguruenik ez) urtebeteko epean enplegua aurkitzea.

Adierazlea kalkulatzeko, urtebeteko epean seguru aski edo agian enplegua aurkituko dutela uste dutenen ehunekoak hartu dira kontuan.

LAA = (A= Seguru aski bai edo Agian bai)

6. Prestakuntzari Lotutako Lana Izatea Aurreikustea (PLLIA)

Adierazlea galdera bakarrean oinarritzen da (A), eta bertan ikasleei galdetu zaie zein neurritan uste duten probablea dela (seguru aski bai, agian bai, ez duzu uste, seguruenik ez) euren prestakuntzarekin lotutako enplegua aurkitzea, ikasketak amaitutakoan.

Adierazlea kalkulatzeko, prestakuntzari lotutako enplegua seguru aski edo agian lortuko dutela uste dutenen ehunekoak hartu dira kontuan.

PLLIA = (A = Seguru aski bai edo Agian bai)

7. Derrigorrez Emigratu Beharra Aurreikustea (DEBA)

Gazte guztiei eginiko bi galderatan oinarrituta dago. Lehen galderan (A) inkestatuei galdetu zaie zein neurritan uste duten probablea dela (seguru aski bai, agian bai, ez duzu uste, seguruenik ez) etorkizunean atzerrira lan egitera joan behar izatea. Bigarrenean (B) persona bereberei galdetu zaie zein neurritan joan nahi izango luketen atzerrira lanera (asko, nahikoa, gutxi, batere ez).

Adierazlea kalkulatzeko, seguru aski edo agian atzerrira joan beharko dutela baina joateko gogo gutxi edo batere ez dutela dioten lagunak bakarrik hartu dira kontuan.

DEBA = (A = Seguru aski bai edo Agian bai & B= Gogo gutxi edo Batere ez)

8. Emantzipazioa Zapuztuko dela Aurreikustea (EZA)

Adierazlea lau galderatan oinarritzen da. Lehen bi galderak gazte ez emantzipatuei egin zaizkie; hirugarrena eta laugarrena, aldiz, gazte emantzipatuei.

Lehen galderan (A) gazte ez emantzipatuei eskatu zaie adieraz dezatela zein neurritan uste duten probablea dela (seguru aski bai, agian bai, ez duzu uste, seguruenik ez) urtebetean emantzipatzea, eta bigarrenean (B), zein neurritan nahi duten emantzipatu (asko, nahikoa, gutxi, batere ez). Hirugarren galderan (C), gazte emantzipatuei eskatu zaie adieraz dezatela zein neurritan uste duten probablea dela (seguru aski bai, agian bai, ez duzu uste, seguruenik ez) urtebetean gurasoekin bizitzera itzuli behar izatea, eta laugarrenean (D) zein neurritan (asko, nahikoa, gutxi, batere ez) nahi duten gurasoekin bizitzera bueltatu.

Adierazlea kalkulatzeko, kontuan hartu da, emantzipatu gabeko gazteen artean, urtebeteko epean euren kabuz bizitzea ez dela probablea uste dutenen ehunekoa, nahiz eta emantzipatzeko gogoia izan. Era berean, kontuan hartu da, emantzipatutako gazteen artean, urtebeteko epean seguru aski edo agian gurasoen etxera bueltatu behar izango dutenen ehunekoa, horretarako gogo gutxi edo batere ez izan arren.

EZA = (A = Ez duzu uste edo Seguruenik ez & B = Asko edo Nahikoa) +
(C = Seguru aski bai edo Agian bai & D = Gutxi edo Batere ez)

9. Amatasun eta Aitatasun Atzeratuaren Indizea (AAAI)

Adierazlea bi galderatan oinarrituta egiten da, seme-alabarik ez duten gazteei zuzenduta. Lehenengoa, etorkizunean seme-alabak izateko nahiari buruzkoa da, eta bigarrena, nahi duten adinarekin hori gertatzeko probabilitateari buruzkoa.

Adierazlea kalkulatzeko, seme-alabarik ez duten baina etorkizunean seme-alabak izatea gustatuko litzaiekeen baina nahi den adinarekin hori gertatzea oso edo nahiko gertagarritzat jotzen ez dutenen ehunekoak hautatzen dira.

AAAI = (A = Asko edo Nahiko & B = Gutxi edo batere aukerarik ez)

10. Etorkizunarekiko Konfiantza Indizea (EKI)

Adierazlea hiru galderatan oinarritzen da. Lehen galderan (A), bost urteko epean egoera pertsonala hobetuko dela, bere horretan geratuko dela edo okertuko dela uste duten galdetu zaie inkestatuei. Bigarrenean (B), Euskadiko gazteen egoera hobetuko dela, bere horretan geratuko dela edo okertuko dela uste duten galdetu zaie. Eta hirugarrenean (C) Euskadiko egoera orokorra hobetuko dela, bere horretan geratuko dela edo okertuko dela uste duten galdetu zaie.

Adierazlea kalkulatzeko, galdera bakoitzean, kenketa egin da egoera hobetuko dela uste dutenen eta okertuko dela uste dutenen ehunekoaren artean. Ez dira kontuan hartu egoerak berdin jarraituko duela dioten ehunekoak, ezta erantzunik eman ez dutenak ere.

